




EAEko ekonomiaren termometroa 104,2an kokatu da

EAEko ekonomiaren termometroa
Indizea




Iturria: Ekonomia Zuzendaritza.

lazko azken hilabeteen, EAEko ekonomiaren termometroa 104,2an kokatu zen, aurreko hilabetearen aldean 3,4 puntu jaitsiz, nahiz eta hazkunde biziko eremuan mantendu zen. Beherakada txiki hori, batez ere, kanpo-sektorearen portaera txarrragatik eta industriaren geldialdiagatik gertatu da.

Pertsonen trafikoa hegazkinez berriro handitu da

Aireportuetatik igaro diren pertsonak
Urte bakoitzeko urtarriletik abendura. Milakoak




Iturria: AENA.

2025ean, hegazkinez bidaiatu zuten pertsonen kopuruak beste maximo historiko berri bat ezarri zuen, 7,8 milioi bidaiaria baino gehiago egin baitziren urte osoan. Bolumen horrek, % 4,3ko urte arteko hazkundera dakar 2024aren aldean, eta jada bost urtez jarraian izandako goranzko joera sendotzen du.



Sortutako enpresak biziki hazi ziren azaroan

EAEko eratutako enpresak
Urte bakoitzeko urtarriletik azarora bitartean




Iturria: INE.

INEk argitaratu duenez, **2025eko azarora arte 3.559 sozietate eratu ziren Euskadin, hau da, aurreko urteko aldi berean baino % 14,3 gehiago.** Hau, 2008tik urtarrila azarora aldirako kopururik handiena da, eta hazkunde nabarmenak izan dituen hirugarren ekitaldia izan da jarraian. Ordaindutako kapitala 338 milioi eurotik gorakoa izan da.

Euskadiko inflazioa %2,9ra beheratu zen abenduan

Kontsumoko prezioen indizea (KPI)
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

Inflazioa %2,9koa izan zen abenduan. Hau da, aurreko hilean baino hiru hamarren gutxiago. Azpiko inflazioa %2,4ra jaitsi zen, nahiz eta elikagaiak garestitu, zerbitzuen euspenari eta industriaondasunen merkatzeari esker. Hondar inflazioa ere jaitsi egin zen, elikagai ez landuen eta energiaren eusteari esker.